

«Batzuetan ahaztu egiten dugu Euskal Herria bera hamaikatxo migrazioren ondorio dela»

MARTA LUXAN EHuko irakaslea

Etorkizuneko biztanle kopurua eta osaketa egungoaren parekoa izango dela aurreikusten du Luxanek; etorkinei lekukotzen laguntzea izango da erronka.

INIGO BILBAO
Bilbo

Ugalkortasunaren ausia zertan izango den etorkizuneko Euskal Herrian aztertuko du bihar Marta Luxan EHuko irakaslea, Bilbon. Gaindegia ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak antolatutako jardunaldietan izango da: *Ugalkortasunaren ausia etorkizuneko Euskal Herrian*. Prospekzio demografikoa egingo du Luxanek. **Demografia datuetan oinarrituta, zer nolako Euskal Herria aurreikusten duzu?** Gauzak ez badira gehiegi aldatzen zahartze prozesuak aurrera egin eta jaiotze tasak igotzen segituko dutela uste dut. Baina ez dirudi gehiegi igoko direnik. Eta gauzak aldatzen ez badira, immigrazioak segitu egingo du. Etorrera hori politikoei eta antzeko eragileek hartzen dituzten erabakien arabera izango da, noski. Esan dezakegu beraz, gaur egungo biztanleria mantenduko egingo dela, eta ez dela egundoko hazkundea izango.

Etorkizunean zenbait herri husteko, despopulatzeko, arriskua badago?

Iparraldean zer edo zer gertatzen ari da bide horretan, eta baita Nafarroa Garaian ere, batez ere herri txiki-txikietan. Horietan bizi direnak gero eta zaharragoak dira eta horietan bai, gerta daiteke hustea. Baina diozun bezala, despopulatu, ez dut uste hori gertatuko denik. Egia da azken urteetan jendea hasi dela hiriak utzi eta herri, behar bada ez oso txikietara baina bai ertainetara, aldatzen. Eta egia da zenbait lekutan aterabiderik ez bada jendea alde egiten ari dela. Baina hortik haratago, ez.

Etorkinek zein nolako pisua izan dute, dute eta izango dute Euskal Herrian?

Gaurko Euskal Herria, guk ezagutzen duguna, ezinezkoa litzateke ulertzea XX. mendean etorri zirenak kontutan hartu gabe. Guk ezagutzen dugun Euskal Herria hamaika migrazioren ondorio da eta batzuetan ahaztu egiten dugu hori. Hori kontutan hartzea lagungarri gerta dakiguke orain datoez bestea beste modu batez hartzeko. Areagotzen ari den fenomeno da, eta leku batzuetan bereziki nabarmen da, bai; baina datuak hotz-hotzean hartuz gero ohartu-

ko gara etorkinen pisua ez dela horren handia. Horrek ez du kentzen arazoak egotea. Aurreikusitako behar da nola errazten zaion jende horri lekukotzea, edo nola egiten dugun guztion artean etorkizuneko Euskal Herria izango dena asmatzeko. Argi dago jaiotze tasaren igoeraren zati bat etorrera horren ondorio dela. Datozenak gazteak izan ohi dira; umeak egiteko adinean, eta umeak egiten dituztenak.

Euskara arloan, proiektuorik egin duzue? Zein etorkizun ikusten diozue?

Horri ezin diot zuzenean erantzun, gure lana demografiari lotuta dagoelako. Baina argi dago datorren jendeak euskara ikasiko badu, horretarako baliabideak jarri beharko zaizkiela. Ez dut uste arazorik izango denik, ez bada jende horri mugak jartzen zaizkiola euskara ikasteko. Eta leku batzuetan hori gertatzen ari da honezkero.

Ugalkortasun tasak kezagarritzat jo izan dira. Umeak egitea ezinbestekoa da herri batek aurrera egin dezan?

Nik ezetz uste dut. Edozer kezagarri dela esan aurretik testuingurua ondo aztertu behar dugula uste dut. 1974an, *baby-boom* garaiak tasak gaur egungo adin egiturari aplikatuz gero, ume gehienak biziko zireen ez gurasoekin, guraso eta aitona-amonekin baizik. Ez dakit nik hori onuragarri den edo ez.

Aurrera egiteko umeak behar dira, noski. Ez dakidana da zer den garrantzitsuago, zenbat garen edo garenok nolako harremanak ditugun gure artean. Ez dut batere gustuko ugalkortasunaren jaitsieraz

Gurean ere eragin egin du bigarren trantsizio demografikoa

Euskal Herrian, Mendealdeko gainerako herrialdeetan bezala, II. Gerrate Nagusiaz geroztik demografian izandako aldaketek Bigarren Trantsizio Demografikoa deitu izan zaie. Aldaketa horien arabera, ezkontza adina atzeratu egin da, eta gora egin dute bakarrik bizi direnen, ezkondu gabe dauden bikoteen eta jatorrizko etxean bizi direnen kopuruek; eta, hartara, atzeratu egin da gazteen emantzipazio adina. Era berean, gutxitu egin da ugalkortasuna, baina gora egin du elkartze libreen ugalkortasunak. Bestalde, dibortzio tasak eta elkarrekin bizi diren bikoteen banaketa tasak ere gorantz joan dira, eta banaketa osteko famili berriakuntza ez da bideratu ezkontza berrietan, bizikidetzan baizik. Horiek dira, besteak beste, Euskal Herriko demografia zertan den aztertze bikoitzeko Mila Amurrio eta Ane Larrinaga EHuko irakasleek aipatuko dituzten datuak.

«Datuak hotz-hotzean hartuz gero ohartuko gara etorkinen pisua ez dela gurean horren handia»

«Emakumeak ikusten du gaur bizitza luzea izango duela, eta baduela denbora gauza asko egiteko»

MARTA LUXAN
EHU-KO IRAKASLEA

hitz egiten denean erabiltzen den katastrofe-tonu hori. Ume gehiago izateko aurretik bestelako auziak konpondu beharko dira.

Europar gertatzen denarekin alderatuz gero, egoera askoz okerragoan gaude?

Gertatzen da niretzat ez gaudela egoera txarrean. Euskal Herrian Europako hegoaldean eman den prozesu oso antzekoa izan dugu. Ez bakarrik ugalkortasunari buruz, baita familia harremanetan egon diren aldaketak ere: dibortzioak, banaketak, ezkontza ez diren bizitzeko beste ereduak... Europako iparraldean, Eskandinaviako herrialdeetan, jaiotze tasak aspaldi igo ziren, baina Europako beste leku askotan ere oso tasa baxuak dauzkate, geuk bezala.

Zein faktorek eragiten dute emakumearen umeak egin edo ez erabakitzeak?

Erantzunarekin asmatzeagatik milioia irabaziko nuke. Askotarikoak dira faktoreak. Horretaz hitz egin nahi dugu jardunaldian. Badira jakina, faktore ekonomikoak: zure kabuz bizitzera joateko baliabideak dituzun edo ez; lanik badaukazun, edo ez; bikoterik baduzun, edo ez —eta badakit horri buruz hitz egitea, magiaz hitz egitea dela—; hor badira arrazoiak. Eta badira bestelakoak. Norberak etorkizunaz dituen itxaropenak, batez ere; zer egin nahi duen. Emakumeak ikusten du bizitza luzea izango duela eta baduela denbora gauza asko egiteko. Bizitza luzatu egiten den heinean, zenbait erabaki ere atzeratu egiten dira.

Ammako langileak pozik dira lortu duten akordioarekin

EDURNE ELIZONDO

Iruñea

Ez dute greba eginen. Iruñeko zaharrak etxean artatzen dituen Amma Asistencial-eko familia-langileek akordioa lortu dute enpresarekin, eta bertan behera utzi dituzte mobilizazioak. Langile batzordeak astelehenean lortu zuen aurre-akordioa Amma-ko ardura-dunekin. Herenegun, enpresako langile guztiek eman zioten oniritzia. Denen poza azpimarratu du langile batzordeko buru Pili Errok.

«Grebaren aukerak beste inori baino min handiagoa eragiten zizun guri; baina hau duintasunaren izenean egin dugu, ematen dugun zerbitzuaren kalitatearen alde», azpimarratu du Errok. Lortu duten akordioarekin langileen baldintzak duindu direla uste du, hain zuzen ere, nahiz eta oraindik zerbitzu bera zuzenean Iruñeko Udalaren izenean egiten duten langileen baldintza berak ez lortu.

Azken zortzi urteotan orduka egin dute lan Amma-ko familia-langileek, soldata finkorik gabe. Hori izan da beren eskaera nagusietako bat, eta, arlo horretan, akordioa lortu dute. Mila euroko oinarrituko soldata jasoko dute aurrerantzean, eta 1.100 eurokoa 2007ko urtarrilaren 1erako 1.481 ordu lan egin izanaren duten langileek. Ordu kopuru hori betetzen duten familia-langileak espezialistak izan dira aurrerantzean, akordio berriaren arabera.

Errok azpimarratu du Iruñeko Udalak bat egin duela akordioarekin, eta aintzat hartzeko konpromisoa hartu duela. Izan ere, Amma Asistencial enpresak laster utziko du zerbitzua. 2007ko otsailaren 1etik aurrera enpresa berri bat hasiko da lanean. Enpresa hori zein izan den erabakitzeak, hain zuzen ere, deialdi publikoa eginen du Iruñeko Udalak. Lehiaketa horren baldintzak prestatzen ari dira orain. Udalaren konpromisoa da, hain zuzen ere, baldintza horietan isla izateko langileek eta oraingo enpresak hitzartu dituzten hobekuntzak, enpresa berriak errespetatu ditzan.

URRATSAK EGITEN JARRAITZEKO AUKERA.

Pozik bai, baina nahi zuten guztia lortu ez dutela jakitun. Halaxe daude Amma-ko langileak, batzordeko kide Inma del Ríoren hitzetan. «Bi aldeek amore eman behar izan dugu hainbat kontutan». Udalaren menpe diren langileen baldintzak oraindik hobekuntza dirala nabarmendu du, baina hitzarmenak urratsak egiten jarraitzeko aukera ematen duela gaineratu du.

Langileek zerbitzuaren erabil-tzaileen laguntza eskertu dute.